

407.ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA -2021EKO MARTXOA



MAXIXATZEN

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA

PANDEMIAK URTEBETE

ERRONKAK ETA AJEAK



INNOVA
AZPEITIA

HORTZ KLINIKA



Jose Artetxe 5 • 943025955




3 logela · 2 bainugela · 90m²
Etxebizitza altu eta argitsua,
gune lasaian

Salgai
275.000€



2 logela · 1 bainugela · 66m²
Azkoitiko erdigunean aukera
paregabea

Salgai
230.000€



4 logela · 2 bainugela · 114m²
Santa Klara kalean 4 logeladun
etxebizitza

Salgai
250.000€



2 logela · 1 bainugela · 75m²
Ibaiondo kalean, gaur
egungo pisu polita

Salgai
170.000€

**Donostiako inmobiliaria garrantzitsuenekin
elkarlanean jarraitzen dugu.**



DONOSTIA – JOSE MARIA SALABERRIA KALEA

**Amaran etxebizitza aparta, Familia
Santuaren eta Pio XII Plazaren ondoan**

3 logela · 2 bainugela · 83m²



Salgai
420.000€

Etor zaitez aukera desberdinak ikustera



MAXIXATZEN 407

2021EKO MARTXOA

AZALEKO ILUSTRAZIOAREN EGILEA:
ITXARO IRAETA



Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Onintza Lete Arrieta,
Fruituak dastatzeko unea
- 6 **Hitz bitan** Naia Arrizabalaga,
bertsolaria
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Amaia Garate,
Urte hasiera
- 10 **Iritzia** Juan Ramon Alberdi,
Iraganaren neurriak
Rina Cabeza, *Gazteria*
kriminalizatzen
- 12 **Erreportajea** COVID-19arekin
urtebete
- 18 **Iritzia** Amaia Artetxe eta Mirari
Bastida, *Masknea*
- 19 **Iritzi grafikoa** Gorka Larrañaga
- 20 **Elkarrizketa** Ainhoa Aranbarri,
errugbiko jokalaria
- 24 **Bazkidetza eta Zakelmari**
- 26 **Erretratua** Jose Antonio Zulaika,
atleta
- 30 **Plazan Bazan**
- 32 **Akordatzen** Angel Mari Arenas,
Musikaren eta herrigintzaren
uztarritik

- 38 **Klik!** Larunbatetako azoka
- 44 **Kultura** Maite Lopez Las Heras,
Burbuilak
- 46 **Euskara** Aitor Arruti Rezabal,
Hizkuntzaren giltzak
Bertsoa paperean

MAXIXATZEN



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
maxixatzen@maxixatzen.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua

Nerea Uranga
Erredaktore taldea:
Aitziber Arzallus
Andoni Eldualen Soraluze
Anartz Izagirre
Mailo Oiarzabal
Nerea Uranga

Diseinu arduraduna

Itxaro Iraeta
Publizitate arduraduna
Egoitz Azkoitia
Zenbaki honetako
kolaboratzaileak:
Amaia Garate
Juan Ramon Alberdi

Rina Cabeza
Amaia Artetxe
Mirari Bastida
Gorka Larrañaga
Maite Lopez Las Heras
Aitor Arruti Rezabal
Onditz Alberdi Gogortza

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 850 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



AZKOITIA
Udala



PUBLIZITATEA



artelan
TXELO ARANGO

Marraskia
Olio-pintura
Akuarela
Pastela-pintura
Ikatx-marraskia
Bustina
Plastilina
Eskulana
Florea Berri, 1
Tel.: 943-85 18 41

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala

Kale Nagusia 67 943-50 34 47
Urbarte 9 bis 943-15 00 23

**AZKOITIA
AZPEITIA**

e t k

Informatika Zerbitzuak
943-02 63 29
www.etkinformatika.com

br

arkitekturaestudioa
santaklara kalea 35 | 943083487
www.brarkitektura.com

Web proiektuak
Software ingeniariatza

elkarmedia()

info@elkarmedia.eus
943-85 08 74

PB sport

Ibaiondo, 7 • 943-02 56 88
Kale Nagusia, 87 • 943-85 20 98
AZKOITIA

Dean

Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

ETXEZA TABERNA

Etxeza Etxea, Z/G. • 943-85 20 31

JARRI
HEMEN
ZURE
IRAGARKIA

KATTAGORRI ARTEA

TALLER ARTISTIKOAK
GOIZ ETA ARRATSALDEZ: gazte eta helduentzat

kattagorriarte@gmail.com
674335988
Zuatzola kalea, 2. Azkoitia

**TXALON ERREKA
AZKEN ETXEBIZITZAK**

www.aranbarri.com

ARANBARRI
INMOBILIARIA

Fruituak dastatzeko unea



ONINTZA LETE ARRIETA

Honezkero ohartuko zinen zenbaki hau beteago datorrela; pisu gehiago duela, mardulagoa dela. Orriak aurrera eta atzera ibili bazara, akaso aurkituko zenuen GUKA izeneko beste azal bat, aldizkari barruan. Horixe aurkeztera natorkizu, hain zuzen: mimoz ondu dugun hamasei orrialdeko gehigarria da, eta Urolako Komunikazio Taldearen (UKT) lau herri aldizkariekin banatuko da hemendik aurrera, hilero; *Baleike*, *Karkara*, Maxixatzen eta *Uztarriarekin*. Binakako elkarrizketa sakonak, erreportaje zabalak eta urrutira joan gabe ezagutzeko eta egiteko planak aurkituko dituzu zenbakiz zenbaki. Elkarrizketa edo erreportaje nagusia egiten duen kazetariak gaiari buruz iritzi edo analisisa ere eskainiko du, eta aurrenekoa Amaia Urbietza Zarauzko erredaktoreburuari egokitu zaio.

Papereko berrikuntza honekin batera, lantaldean ilusio handia eragiten digun beste estreinaldi bat ere aurkeztu beharrean gara: GUKA magazina. Hilero ordubeteko saio fresko, bizi eta zaporez betea eskainiko dugu martxoaren 5ean hasita Erlo Telebistan. Mireia Galarza kazetariak aurkeztuta, Urola Kostako herri eta auzoetan barrena ibiliko da saioa. Aurreneko geldialdia Getarian egingo dugu, eta Eñaut Elorrieta izango da elkarrizketatu nagusia. Erreportaje txikiak ere izango ditu magazinak, baita inkesta, agenda eta halako atalak ere. Eta, noski, esku artean duzun gehigarriak ere izango du bere tokia telebista saioan. Batetik, elkarrizketa edo erreportaje nagusiaren laburpena eskainiko da, eta bestetik, *Urrutira joan gabe* atala izango du: paperean zerbait praktikoa eta motza dena, magazinean zabal eta luze jorratuko da. Gorka Peñagarikano kazetariak egingo ditu aurkezle lanak, eta bisitatzen duen txoko bakoitzean edukiko du tokia erakutsiko dion gonbidaturen bat. Aurreneko geldialdia Azkoitiko Aittolan egin dugula ikusiko zenuen. Bada, QR kode bat jarri dugu, erreportaje osoa ikusi ahal izateko oraintxe bertan, eta beste kode bat jarri dugu elkarrizketaren amaieran.

2019ko ekainean sortu genuen UKT, eta iritsi da lehen fruituak patxadaz dastatzeko unea. On egin diezazula! ■■■

**HILERO HAMASEI
ORRIKO GEHIGARRIA,
ETA TELEBISTA SAIO
FRESCO, BIZI ETA
ZAPOREZ BETEA
ESKAINIKO DITUGU**

Naia Arrizabalaga: "Gustuko ditudan bertsoak behin eta berriz entzuten ditut, buklean"

TESTUA ETA ARGAZKIA: AITZIBER ARZALLUS

Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalera sailkatuta, bertsotarako gaitasuna baduela erakutsi du Naia Arrizabalagak (Azkoitia, 2004).

Nondik datorkizu bertsotarako zaletasuna?

Gure etxean aitona-eta beti entzun izan dituzte bertsoak, beti ikusi izan dugu *Hitzetik Hortzera*... Gero, eskolan bertsolaritza lantzen hasi ginenean, konturatu nintzen gustuko nuela, eta orain dela bost bat urte bertso eskolan eman nuen izena.

Zer da bertsolaritzatik gehien erakartzen zaituena?

Dena. Batzuek uste dute bertsolaritza dela oholtaza gainera atera eta lau bertso botatzea, baina niretzat hori baino askoz gehiago da: hor atzean dagoen giroa eta lagunartea sekulakoak dira.

Nola gogoratzen duzu jendaurrean abestu zenuen lehen aldia?

Duela bi urte izan zen, 2019ko Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan, Oñatin [Gipuzkoa]. Probatzera joan nintzen. Saioko gazteena izateak erreparo pixka bat ematen zidan, baina lotsak galdu artekoa izan zen. Ondo sentitu nintzen, gustatu egin zitzaidan, eta horregatik erabaki nuen berriz parte hartzea.

Oholtzara atera aurreko minutuetan zer sentitzen duzu?

Lotsarik ez dut sentitzen, baina kezka pixka bat bai; potorik egingo ote dudan, zer erantzun asmatuko ote dudan... Dena dela, txapelketan izena ematea erabakitzen bada, esan nahi du badagoela konfiantza pixka bat norbere buruarekin.

Bertsolaritzan zein da zure erreferentea?

Julio Soto asko gustatzen zait.

Etxean bertsotan aritzeko joerarik ba al daukazu?

Bai, askotan aritzen naiz kantuan, edozein lekutan: duxan, ispiluaren aurrean, ahizparekin...

Batzuetan bat-batean jarduten dut, eta beste askotan besteei entzundakoak kantatzen. Ohitura handia daukat bertsoak entzuteko. *Bertsoa.eus*en sartzen naiz, eta umorearen arabera, saio bat edo bestea jartzen dut: triste nagoenean, bertso tristeak; alai nagoenean, umorera jotzen dutenak.

Eta boladaka joaten naiz: gustuko ditudan bertsoak behin eta berriz entzuten ditut, buklean, nazkatzen naizen arte.

Bertsoak idazteko ohiturarik ba al daukazu?

Bai, eta bertso paper lehiaketetan ere parte hartzen dut. Badago jendea lotsagatik-edo oholtzara atera nahi ez duena, baina bertsotarako sekulako gaitasuna duena, eta haientzat aukera polita dira bertso paper lehiaketak.

Herriko gazteek ba al dute bertsotarako zaletasunik?

Bertsotan egiteko, gutxi; bertso eskolan beti zaharragoekin entrenatu dut, herrian ez dagoelako bertsotan ibiltzen den nire adineko besterik.

Bertsozalea, berriz, gehiago dago, saioetara-eta jendea joaten da.

2020ko Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan bigarren egin zenuen. Espero al zenuen?

Erabateko ustekabea izan zen.

Horri esker, zuzenean sailkatu zinen Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalera, baina bertan behera utzi behar izan zuten saioa. Pena, ezta?

Pena hartu nuen, baina ez nintzen harritu. Dena dela, ordainetan edo, finalera sailkatutakooi aukera eman ziguten beste saio batzuetan parte hartzeko. Nik Gernikan kantatu nuen Maialen Lujanbiorekin, Etxahun Lekuerekin eta finala jokatzekoak ziren beste bi bertsolarirekin. Txapelik ez genuen irabazi, baina saio horrekin gelditzen naiz; horrelako aukera gutxi izaten dira gazteontzat.

Zer moduzko esperientzia izan zen?

Errespetua ematen du Lujanbioren eta Lekueren tamainako bertsolarien alboan kantatzeak. Bagenekien haien mailara ez ginela iritsiko, baina geure burua defendatzeko lain izan ginen eta asko gozatu genuen.

Bertsolaritzan noraino iritsi nahi zenuke?

Ez daukat helburu zehatzik. Oraingoan, bertsotan segitzea nahi dut eta bertsolaritzaren bueltako jendea ezagutzea eta lagunak egitea, giro hori asko atsegin dut eta. Lan eginda eta denborarekin joango dira kantatzeko aukerak sortzen. ■■■



Urte hasiera

ARGAZKIA ETA TESTUA: AMAIA GARATE

Elizak kontrakoa erabaki arte,
urtea martxoan hasten omen
zen. Hala diote, behintzat,
batzuek. Guk urtarrilean hasi
genuen. Bertan hasi ere,
halabeharrean. Horrek eman
digu beta gure bazter ederrei
gehiago so egiteko. Horrela
eman baikenion hasiera
hamarkada berri honi.

Egunak gris.
Gauak beltz.
Mendiak zuri. ■■■







Iraganaren neurriak

David Tijero-ren aforismo batek dioenez: Iragana gero eta handiagoa da.

Esaldi borobil horrek hainbat hausnarketa bide irekitzen ditu, niri bederen, atzetik jarraika daukadan, eta gero eta erraldioagoa den, gurpil baten figura iradokitzen dit. Atzetik eta gertutik jazarri arren, inoiz harrapatuko ez nauena, batez ere, orainaldiaren zangoak zertxobait aurreragotik dihardutelako. Alabaina, ziurra da ez nauela sekula-santa atzemango? Ezen, denboraren kontzeptua eta dimentsioa objektibotzat har daitezkeen arren, eurekiko norberaren baitako sentipen, oroimen edo pertzepzioaren arabera subjektibotasuna ere ukaezina da. Horregatik, iruditzen zait iragana neurri ezberdinetan uler daitekeela. Are gehiago,

hala konprenitu behar dugula. Halaber, iraganaren neurriak zehazterakoan, bi aipatu nahi nituzke: bata, norberak bizi izandako denboraren arabera litzateke; bestea, iraganak proposatzen dizkigun neurriak, zeintzuek ikasbide eta jokamolde gisa har daitezkeen.

Bizi izandako denborari buruz hitz egiterakoan, aipagarria da norberak ematen dion enfasia. Eta hau, era argigarri bezain harrigarrian, belaunaldi ezberdinen arteko pertzepzioan ikusten da. Haur bati galdetzen badiozu, ea zerbait egiten ba al dakien: bai, "aspalditik" erantzungo dizu. Eta hamarkada bikoitza dagoeneko hiru aldiz iragan dugunon aurpegian irriño xalo bat pizten da: kontxo! Zein motza den honek aspaldi

kontzeptuarekiko duen pertzepzioa. Aldiz, gaztearentzako iragana oso emankorra da. Bizi izandako denbora oro goranzko bidean egin du: sasoi onenera iristen, eta bere iritziz, ikasi beharreko denak irakatsi dizkio iraganaldi eskuzabalak. Alta, goitik beherako noranzkoak ere baditu bere ikasbideak, gainera, belaunentzako kaltegarriena da. Helduaroan, urteak oharkabean joan direnaren sentsazioa gailentzen da, 60 urte igaro arren, iragan lausoa nagusituz; sarritan selektiboa dena. Eta zahartzaroan, diotenez, haurtzaroko oroitzapenak nabarmentzen dira. Beraz, agian haurtzaroko iragana ez da hain laburra edo motza, ezen beste denek baino gehiago irauten du.

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



RINA CABEZA

Gazteria kriminalizatzen

Azken hilabeteetan masa-komunikabideek gazteriaren aurkako kanpaina bat jarri dute martxan; hau da, gazteok kriminalizatzeko irudi estandar bat erabiltzen dute; gazteria arduragabea. Hori da, gaur egun, gazteen inguruan zabaltzen den ikuspegi orokorra.

Bestalde, polizia agenteen presentzia ere nabarmen gehitu dela denok ohartu gara. Baina benetan, zein da agente horiek betetzen duten funtzioa pandemian? Nik uste dut argi geratu dela horien funtzioa zein den Euskal Herriko hainbat tokitan azken asteetan bizi izandako gertaerak kontuan hartuta. Horren adibide dira Donostiako Alde Zaharrean gertatutakoak edota Azkoitian bertan pasatutakoak (eraso fisikoak, irainak, isunak edota identifikazioak). Erasotutako guztiak kapitalismoaren biolentzia estrukturalaren barruan ulertu behar ditugu eta ez modu isolatu batean.

Alde batetik, gazteriaren kriminalizazio masibo bat ematen ari da komunikabideetatik; beste alde batetik, berriz, polizien botere erakustaldi bortitzen ikusle gara. Horren guztiaren bitartez, etorkizuneko langile despolitizatu, obediente eta sumisoak nahi dituzte. ■

Bigarren neurriari buruz aritzerakoan, norberak bizi izandakotik barneratutakoa azpimarratu nahi dut. Arestian nioen, iraganak ezin gaituela harrapatu, baina gure jokamolde oro aurrez ikasi edo bizi izan dugunaren haritik sortzen dira. Une labur bezain jarraitua den orainaldian, iragana eta etorkizuna ehuntzen aritzen gara: aurrez ikasitakoarekin geroan nola moldatu pentsatzen. Eta ehunzte horretan datza gure ekintzen ardura: iraganak ikusarazi eta irakatsi digunarekiko dugun jarreraren.

Alta, gizaldi oro, belaunaldiz belaunaldi, aurrez egindako akats bertsuetan jauzten da/gara: "Historia errepikakorra da". Esan daiteke, iraganaren handitasuna errepikatutako

sekuentziaz osatuta dagoela: okerretik okerragorako bidea osatuz. Halaber, ez dugu gizarte gisa jokatzen. Pertsonaz osatutako talde baten orde, norbanako andana gara, bakoitza bere etorkizun propioari tiraka. Alabaina, etxea teilatutik eraiki ezin den lez, ezinezkoa da bizitza etorkizunean oinarritzea. Ez behintzat aurrez iraganak erakusten dizkigun neurriak eta jokabideak kontuan hartu gabe. Ildo horretan, haurren pertzepzioaren zuzentasuna kontuan hartuz, "aspalditik" jakin beharko genuke nola jokatu gizarte berdina goa eta justuagoa izateko.

Harrapa gaitzala iragandakoak bere neurri eta irakasbideekin, agian horrela: Iraganak gero eta handiago bilakatuko gaitu. ■





Urtebete COVID-19arekin

laz, martxoaren 13an, alarma egoera ezarri zuen dekretuz Espainiako Gobernuak. Ordutik, pandemiak eragina izan du eguneroko bizitzan. Azkoitiko Udalean, eskualdeko ekonomian eta herriko gizarte eragileetan urtebetea gainditu behar izan dituzten erronkak eta ajeak aztertu ditu Maxixatzenek.

Testua: **Anartz Izagirre, Mailo Oiarzabal eta Nerea Uranga.** Argazkiak: **Mailo Oiarzabal eta utzitakoak.**

Azken urtebetean, bazter guztietan izan dira ajeak, berrikuntzak eta bizitzeko era berrira moldatu beharrak. Koronabirusak eragindako pandemiak egunerokoan eragin du. Herritarrak ez ezik, administrazioak, erakundeek eta eragileek ere egokitu behar izan dute. Azkoitiko Udalean alarma egoera ezarri zuten lehen unetik hartu zituzten neurriei aurre egiteko erabakiak, hala adierazi du Ana Azkoitia Ogasun zinegotziak: "Zerbait ikasi dugu". Gauza batzuk gelditzeko etorri dira haren ustez; telelana, esaterako. "Egoerak udaletxean antolatzeke eta lan egiteko modua aldatu egin digu. Udalaren sail guztietan jarri da telelanerako aukera, udalaren zerbitzu guztiak beti bermatuta daudela".

Denboran atzera eginda, iazko martxoaren 13an ezarri zuten alarma egoera, 463/2020 Errege Dekretuaren bidez. Garai hartan, Azkoitia langabezia datu aldetik nahiko egoera onean zegoen, baita udalaren egoera ekonomikoa ere. "Orain ere, udalaren egoera ona da". Larrialdi egoera ezarri orduko hasi zen udala neurriak hartzen: larrialdi kasuetarako protokoloa martxan jarrita, Jarraipen Batzordea osatu zuen. "Dekretu berri bat atera orduko, udal barruko antolaketan zein kanpokoan zer egin erabakiak hartzen genituen batzordean. Gero, han erabakitakoa udal talde politikoei komunikatzen genien".

Aurren-aurrena, Udal Gizarte Zerbitzuek "behar gehiena" zutenengana nola iritsi aztertu zuten, eta hor jarri zuten "indarra". Hala, Gurutze Gorriarekin hitz egin eta etxeetara laguntzak bideratzeko boluntario sarea osatu zuten. Elikagai Bankuari ere dirulaguntza berezi bat eman zion udalak. Datuak ere eman ditu Azkoitiak: "Iaz, udal Gizarte Zerbitzuetan 30 familia gehiago artatu ziren, 90 pertsona gehiago gutxi gorabehera". Eusko Jaurlaritzak, berriz, larrialdiko laguntzak emateko diru partida igo egin zion udalari.

Konfinamendua luzatu zen neurrian, bestelako eskaera batzuk jasotzen hasi zen udala. "Herrixen merkatarik elkartarekin eta elkarteetan ez dauden beste merkatarik batzuekin bildu ginen, eta itxialdiak eragindako kaltea samurtzeko 200.000 euro jarri genituen, eta 151 establezimenduri lagundu genion". Horrez gain, itxita egon ziren garaiko terrazaren eta zaborraren tasak ez zizkien koratu ostalariei eta merkatariei. Herriko ostalaritzako, merkataritzako eta zerbitzuetakoei laguntzeko bonoak ere atera zituen udalak: "Sektore desberdinetan gastatzeko bonoak atera genituen, jarduera gehiagotara iristeko". COVID-19aren ondorioz egindako inbertsioei aurre egiteko beste dirulaguntza bat ere bideratu dute udaletik merkataritzara eta ostalaritzara: Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako 34.000 euroko laguntza. Dirulaguntza "erraz eta azkar" eskatzeko modua jartzen ere ahalegindu da udala: "Eskaera egin eta hilabeteko epean ordaindu genituen laguntzak".

Udalak iazko aurreikusita zituen inbertsioetan ere aldaketak egin behar izan ditu pandemiaren ondorioz; esaterako, teniseko pista estaltzean eta skate, kalistenia eta parkour parkean. "Alarma egoera ezarri aurretik, tenis pista estaltzeko lizitatzeara ateratzear ginen, eta hor utzi behar izan genuen. Inbertsio handia da, 475.000 eurokoa. Dena den, argi dugu proiektu hori agintaldi honetan egin nahi



Ana Azkoitia Azkoitiko Udaleko Ogasun zinegotzia.

ALARMA EGOERA EZARRI ORDUKO, LARRIALDI PROTOKOLOA JARRI ZUEN ABIAN UDALAK

"ARAU FISKALAK MALGUTU DITUZTENEZ, ZORPETZEA ERABAKI DUGU PROIEKTUAK AURRERA ATERATZEKO"

dugula, kirol horrek merezi duelako". Skarte, kalistenia eta parkour parkearen proiektua (120.000 euro), berriz, aurtengo inbertsioetan aurreikusi du udalak.

Udaleko ditu kontuetan ere nolabait erasan du pandemiak, eta horri aurre egiteko erabakiak hartu behar izan dituzte. "Foru Funtsetik milioi bat euro inguruko jaitsiera izango genuela jakinda, gure kezka zen ea nola orekatu aurrekontua. Izan ere, udalaren sarrera garrantzitsuen da Foru Funtsa". Gerakina bazuen udalak, ordea, baita aurrera egiteko aukera ere. Dena den, esku artean zituen proiektuei heltzeko, beste neurri batzuk hartu behar izan zituen udalak: batetik, hainbat gastu izoztu egin zituen, eta beste batzuk ez egitea erabaki zuten. Bestetik, zorpetzea erabaki zuten. "Kostu handia duten eta udal alderdi guztiok adostutako bi proiektu genituen: Floreagako irisgarritasuneko obrak eta igerileku berria. Pandemiak eragindako egoeraren ondorioz, baina, arau fiskalak malgutu egin dituzte, eta guk lehenago zorpetzea erabaki dugu. Hala, abenduan 1.800.000 euroko mailegua sinatu genuen. Eta aurtun, beste mailegu bat eskatzea aurreikusita dugu. Zorpetzea aurreratu dugu, legeak ahalbidetu digulako eta proiektu horiekin aurrera jarraitu nahi dugulako", azaldu du Ogasun zinegotziak. Aurtengo udal aurrekontuekin ere gustura da, "sekula ez bezalako adostasunarekin" onartu dituztelako.

Baheketa masiboa, urrian

COVID-19 kasuei dagokionez, Osakidetza proba diagnostikoak egiten hasi zenetik otsailaren 24ra artean, 912 kasu hauteman dituzte herrian; dena den, gaitzaren agerraldirik ez da egon Azkoitian. Baina urrian ezustekoa hartu zuten: Jaurlaritzako Osasun Sailak baheketa masiboa egitea erabaki zuen herrian. Agerraldirik izan gabe, baheketa masiboa egin zuten lehen udalerria izan zen. "Positiboen datua altua zen orduan, baina ezustekoa hartu genuen, kontu berria zelako".

Herriko arlo desberdinetakoekin harremanetan egon da hilabeteotan udala, egoera zuzenean jarraitzeko; besteak beste, Iraurgi Berritzeneko Enpresagunearekin: "Hala, gune horretako enpresen berri jakin dugu zuzenean". Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ere bildu dira udal ordezkariak: "Koordinazioa egon da eta informazioa ere jaso dugu". Inon hutsunea atzeman badute, Europatik iritsiko diren funtsen inguruan da, Azkoitiaren arabera: "Ez dakigu Europako diru horiek iritsiko diren udalera eta zer bidetatik helduko diren".

Elikagai bankua zabalik

2020ko martxo erdian, konfinamendu hertsia iritsi zenean, mundua gelditu egin zen, neurri handi batean. Jarduera asko, ia arlo guztietan, eten, bertan behera gelditu edota mantsotu ziren. Caritasek kudeatzen duen Azkoitiko elikagai bankuan, ordea, mugak muga eta hartu beharreko neurriak hartuta, jarduerari eustea erabaki zuten. "Ezin genituen ezer gabe utzi", diote bankuaren erabiltzaileez Amaia Ansoaldekin eta Felix Alkorkak, elikagai bankuko boluntario eta arduradunek. Caritasek Bergaran (Gipuzkoa) duen biltegitik jasotzen dute generoa Azkoitiko bankukoek, baina biltegi hura itxi egin zuten



konfinemanduarekin, Azkoitiko biltegia pixkanaka husten joan zen, eta udalak lagundu zien hura hornitzen. "Guretzat salbazioa izan zen", eskertu du udalaren prestutasuna Alkorta. Udalarena ez ezik, herritarren laguntza eta kezka ere azpimarratu du Ansoaldek. "Azken urte honetan, Azkoitiko jende eta enpresa askok eman digute dirulaguntza, askok".

Ehun bat familiak erabiltzen zuten elikagai bankuaren zerbitzua pandemiaren aurretik, eta kopuru horrek azken urtean gorabehera handirik ez du izan. "Ehun bat familia, 360 bat lagun dena, eta 30 bat ume horien artean, 3 urtetik azpikoak", atera ditu kontuak Alkorta, elikagai bankuaren uneotako erabiltzaileez galdetuta.

Urte honen hasierarekin antzeman dute elikagai bankukoek egoeraren okertzea. "Ikusi dugu jendea itzultzen ari dela", dio Ansoaldek. Ezkutuko ekonomia aipatu dute elikagai bankukoek, kontraturik gabeko lanak, elikagai bankura itzuli diren askoren kasua azaltzeko. Alkorta dio "herriko jendea" ere hurbildu zaiela azkenaldian; "gero eta gehiago", gehitu du Ansoaldek.

Etxerainoko laguntza

Azkoitiko Gurutze Gorrian ere majo igarri dute COVID-19aren eragina. Orain arte ohikoak zitzuten jarduera gehientsuenak alde batera utzi behar izan dituzte, ezinbestean. Pandemiaren aurretik, asteburuero ez bazen oso sarri bai, kirol, kultur edota festa ekitaldietan zerbitzua ematen zuten Gurutze Gorriko boluntarioek. Azken urtebetean, ordea, horrelako gutxi egiteko aukera izan dute. Aitzitik, gizarte laguntzan buru-belarri murgilduta igaro zitzuten pandemiaren lehen asteak. Hala ere, hasierako lan karga laster arindu zitzaiera kontatu du Ibon Errazuk Gurutze Gorriaren Azkoitiko boluntario taldeko kideak.

COVID-19aren aurrean, "herritarrei laguntzen" ahalegindu dira. Duela urtebete, osasun krisialdiaren hastapenetan, beren egiturako pertsonalarekin zein inguruko erakundeetako gizarte arloko arduradunekin eta eratu ziren herritar sareekin elkarlanean, "ezintasunen bat zutelako edo ausartzen ez zirelako" itxialdia zela-eta etxetik irteten ez zirenak artatzea bihurtu zen Gurutze




Ezkerrean, Felix Alkorta eta Amaia Ansoalde, Caritaseko elikagai bankuaren arduradunak.

Eskuinean, Ibon Errazu, Gurutze Gorriko boluntarioa.

**URTE HONEN
HASIERAREKIN
EGOERAREN OKERTZEA
ANTZEMAN DUTE
ELIKAGAI BANKUKOAK**

**ITXIALDIAREN
HASIERAN, GURUTZE
GORRIKOAK GIZARTE
LAGUNTZAN ARITU
ZIREN BURU-BELARRI**

Langabetu kopuruaren bilakaera Urola Erdian; 2019- 2020



Gorrikoen eginkizun nagusia. Erosketak egitea eta etxeetara eramatea, botikak tartean, eta hondakinak ateratzea izan ziren betebeharrak nagusiak. Azkoitia, Azpeitia, Errezilena eta Zestoa eskaini zituzten zerbitzu horiek; guztira, 28 familia artatu zituzten.

Enpresak eta langabezia

Iraurgi Berritzen garapen agentzia ere Espainiako Gobernuak itxialdia agindu bezain pronto jarri zen Urola Erdiko enprekin eta udalekin harremanetan. Begoña Beobide Iraurgi Berritzeneko zuzendariak dioenez, 2019. urtea bukatzerako eta 2020. urtea hasterako ekonomiaren makaltzea zetorrela erakusten zuten datuek, baina martxoan izan zen benetako kolpea. Bat dator Itziar Abarisketa Iraurgi Berritzeneko Enplegu eta Enpresa Arloko koordinatzailea ere: "Adituek zioten epe horretarako krisi berri bat etorriko zela, baina inork ez zuen espero halakorik". Beobidek dio enpresentzat ez ezik garapen agentziarentzat ere "kaosa" izan zela: "Egun osoa pasatzen genuen lanean. Enpresek esaten ziguten ahal ziren neurrian ari zirela dena kudeatzen, denok bezala". Dena den, eskualdeko enpresek iazko urtea "uste baino hobeto" amaitu dutela dio Beobidek: "Udazkenean aurreikusten genuen %25 jaitsiko zirela fakturazioak, baina azkenean %15-20 arteko jaitsiera izan da. Enpresa batzuetan, gainera, inoiz baino gehiago fakturatu dute".

Abarisketaren arabera, azken urtebetean "fase desberdinak" izan dituzte eskualdeko enpresek: "Hasieran, denon lehentasuna segurtasuna zen: EPIak lortzea, maskarak banatzea... Gero, berriz, ABEEE-en kudeaketa". Gaineratu du martxoa eta apirila "abiadura handiko hilabeteak" izan zirela. Beobideren arabera, digitalizazioa izan zen hasieratik enpresa askoren erronka eta oztopoa: "Egoera honek behartu gaitu orain arte gauzak egiteko genituen hainbat modu zalantzan jartzera. Lehen aurrez aurre egiten ziren jarduerak asko orain online egiten dira; adibidez, bilerak". Abarisketa ere bat

AZKEN URTEBETEAN FASE DESBERDINAK BIZI IZAN DITUZTE ESKUALDEKO ENPRESEK

MARTXOTIK ABENDURA 487 ABEEE IZAN ZIREN ESKUALDEAN; GEHIEN ZERBITZUEN SEKTOREAN

dator: "Egoera honek estrategia birdefinitzeko beharra ekarri dio hainbat enpresari: barne antolaketa, ekoizpena..."

Denbora laburrean Aldi Baterako Enplegu Erregulazio Espedienteak (ABEEE) ezezagunak izatetik herritar guztien ahotan egotera igaro ziren, eta ez da gutxiagorako; izan ere, 2020ko martxoaren 16tik abenduaren 31ra artean, guztira, 487 ABEEE izan ziren Urola Erdian; horietatik gehien, zerbitzuen sektorean (383), eta, bereziki, ostalaritzan (148). Pandemiaren hasiera izan zen ABEEE gehien egon ziren unea, hortik aurrera beheraka joan zen kontua. Beobideren esanetan, enpresa askok "enplegua mantentzeko" erabili zituzten espediente horiek.

Enpresen ohiko jardueran ez ezik, langabezia tasan ere zuzeneko eragina izan du pandemiak, eta Iraurgi Berritzenek egindako diagnostikoaren arabera, joan zen abenduan 2019. urtean baino 47 langabetu gehiago zeuden Azkoitian. Abenduan %9,1eko langabezia tasa zuen Azkoitiak —%10'4 emakumeena eta %8 gizonena—. Urola Erdiko tasatik (%9) zertxobait goitik, baina Gipuzkoako (%9,8) eta EAEko (%12,1) batez bestekoaren azpitik. Abarisketak dio abuztutik aurrera jaisten joan dela langabezia tasa. Biek ala biek diote, langabetuen ezaugarriek "orain arteko joera" mantendu dutela; hau da, lanik gabe dauden gehiengo oinarritzko ikasketak dituztenak direla, eta nabaria dela genero arrakala ere.

Ikusitakoa ikusita, Iraurgi Berritzeneko kideek diote azken urtebeteko datuak ez direla "hain txarrak" izan, eta hainbat gauza on ere ekarri dituela: "Beharrak elkarren beharra dugula erakutsi du; konfiantza eta harremana asko hobetu dira".

Datozen hilabeteetara begira jarrita, berriz, "ziurgabetasuna" aipatzen dute Iraurgi Berritzeneko biek ala biek, eta hil honen bukaerarako egingo duten diagnostikoan islatuko dela urte honen hasierako lehen hiru hilabeteetako joera: "Urteari zer erantzun eman diogun ikusiko da hor, eta orduan irizpide gehiagorekin erantzuteko aukera izango da. Horren arabera, apirilaren bukaerako edukiko dugu aurreikuspena". ■

GARAJE
AXIRI
MARKA GUZTIETAKO AUTOAK
KONPONTZEN DITUGU

Astelehenetik ostiralera:
08:30-12:30 / 14:30-19:00
Larunbatean itxita

Classic

San Joan, Axiri 13
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel. 943-85 04 11 - 674 09 19 62

OSKAR BERNAL GOMEZ
tailleraxiri@gmail.com



Masknea



AMAIA ARTETXE ETA MIRARI BASTIDA

Ia urtebete da egunerokoan eta etxetik kanpo maskara erabiltzen hasi ginela. Maskara erabiltzeak pandemiaren zabaltzea asko mugatzen duen arren, beste arazo batzuk ekarri dizkigu. Farmazian lan egiten dugunok ikusten dugunez, maskarak eragiten dituen kexa gehienak azaleko asaldurei edo alterazioei buruzkoak dira.

Maskaren marruskadura jarraiak, etengabeak eta hezetasunak nahiz maskara barruko mikroklimak aurpegiko azalean bi eragin nagusi ditu, batetik, koipe jariora gehitzen da; bestetik, poroak buxatzea, ondorioz, aknea sortzen da. Maskarak sortutako akne mota horri masknea deitzen diogu.

Zer egin dezakegu, ordea, masknea saihesteko eta tratatzeko?

Bestela ere beti garrantzitsua den arren, masknearen kasu hauetan aurpegiko azalaren garbiketak berebiziko garrantzia du. Gauero, lotara joan aurretik, aurpegiko azalaren garbiketa bikoitza egin behar da, baita makilatzen ez garenean ere. Garbiketarako, lehendabizi azalaren garbitzaile koipetsu bat erabiliko dugu, eguzkitako krema (bai, egunero eman beharrezkoa da azalaren fotozahartzea sahiestu nahi badugu) eta egunean zehar metatutako izerdia eta kutsadura azaletik kentzeko. Ondoren, garbitzaile urtsu batekin borobilduko dugu aurpegiko azalaren garbiketa.



Bada topiko bat: azal koipetsuek hidrataziorik behar ez dutela. Uste hori, ordea, guztiz okerra da. Izan ere, azala osasuntsua izateko, ondo garbitzeaz gain, behar-beharrezkoa da ondo hidratatuta izatea eta hesi funtzioa mantentzea. Masknea izaten den kasuetan, gustuko testura aukeratzea da garrantzitsuena, horrek eguneroko erabilera bultzatuko baitu.

Aknea dagoen kasuetan, beharrezkoa izango litzateke bakoitzari egokitutako tratamendu berezituak erabiltzea. Patologia arina den kasuetan, serum edota krema berezi batekin tratatzea da egokiena. Aknearen kasu larrietan, baina,

medikuarengana joan behar da, hark behar bezala aztertzeko eta tratamendua jartzeko.

Garbiketa eta tratamendu modu horiez gainera, badira azala garbi eta osasuntsu mantentzeko bestelako produktu batzuk ere: tonikoak eta lozioak. Produktu horiek azala garbitu ondoren edota tratamenduaren aurretik erabiltzen dira, eta azala egoki izateko errutina osatzen laguntzen dute.

Azal guztiak desberdinak direnez, dermofarmazietan espezializatutako farmazietan errutina pertsonalizatua prestatzen lagundu dezakegu, egokiena bakoitzaren azalaren arabera garbiketa pertsonalizatua izatea baita. ■



"Gogor entrenatzen jarraituko dut, asko baitaukat ikasteko"

AINHOA ARANBARRI ERRUGBIKO JOKALARIA

Tapiz gainean txiribuektak egitetik, lokaztutako belarretan egitera pasatu da Ainhoa Aranbarri (Azkoitia, 1996). Gimnastika erritmikoan lehiatzen zuen lehen, eta errugbian jokatzeko orain. Kirol oso desberdinak izan arren, diziplina eta gogoia bietan behar direla nabarmendu du.

Testua: **Aitziber Arzallus**. Argazkiak: **Aitziber Arzallus eta utzitakoak**.

Gimnastika erritmikoa eta errugbia. Kirola dira biak, baina gainontzean zuria eta beltza. Ainhoa Aranbarrientzat (Azkoitia, 1996), ordea, biek dute zerbait erakargarria. Umetan hasi zen gimnastika erritmikoa egiten, eta ia oraintxe arte ibili da kirol horren bueltan. Ikasturte berriarekin, baina, errugbia probatzeko aukera sortu zitzaion, eta ezin ezetzik esan. Lau hilabete geroago, Eibarko emakumezkoen lehen taldeko jokalaria da.

Betidanik izan al zara kirolaria?

Bai, eta kirol bat baino gehiago egin izan ditut, gainera. Umetan, eskolako multikirolean ibiltzen nintzen, eta horretaz gain, igeriketa eta gimnastika erritmikoa ere egiten nituen. Iritsi zen momentu bat kirol denak batera egin ezin nituena, eta igeriketa eta multikirolak utzi eta gimnastika erritmikoan zentratzea erabaki nuen. 9 urte nituela hasi nintzen gimnastika erritmikoan eta 20 bat urterekin utzi nion kirol horretan lehiatzeari.

Zergatik utzi zenuen gimnastika erritmikoa?

Behar bezala entrenatzeko denborarik ez neukalako. Garai hartan, ikasten eta lanean ari nintzen, eta ez nintzen denera iristen.

Pena eman al zizun?

Bai, horrenbeste urte eta gero, ez da erraza dena uzteko erabakia hartzea. Hala ere, egia da aurretik behin baino gehiagotan pentsatu izan nuela lagatzea; "hau da azken urtea", esaten nion neure buruari, baina gero jarraitu egiten nuen.

Zergatik pentsatu izan zenuen lagatzea?

Gimnastika erritmikoa oso kirol gogorra da, asko-asko entrenatzea eskatzen du eta entrenatzaileak asko exijitu izan digu beti. Gogoan dut kimuen kategorian, 10-11 urterekin, astean hirutan eta egunean bi ordu eta erdiz entrenatzen genuela; eta geroxeago, ostiral arratsaldeak eskolatik jai izaten genituenean, sei orduko entrenamenduak egiten genituen ostiraletan, 15:00etan hasi eta 21:00ak arte. Gabonetako oporretan ere, 09:00etan hasten ginen entrenatzen, eta ez genuen jakiten noiz bukatuko genuen. Asteburuetan, berriz, lehiatu egiten genuen, Gipuzkoa eta Euskadi mailan. Emaitzak



etortzen zirenean ondo, baina etortzen ez zirenean gaizki pasatzen nuen, neure buruarekin oso zorrotza naizelako. Horregatik, inoiz pentsatu izan nuen lagatzea ere.

Gimnastika erritmikoko garaiekin akordatzan zarenean, momentu gozoak ala gaziak etortzen zaizkizu burura?

Bietakoak ditut gogoan: momentu oso onak bizitzea egokitu izan zait, baina baita oso txarrak ere. Horrenbeste entrenatu arren, azkenean tapiz gaineko minutu horietan egiten duzunak bakarrik balio izaten du, eta gauzak ez dira beti nahi bezala irteten. Oraindik orain, ederki akordatzan naiz zein izan zen nire egunik txarrena: Euskadiko txapelketako saio bat. Bakarrik egin behar nuen erakustaldia, uztaiarekin, ondoen moldatzen nintzen tresnarekin. Egun hartan, jaurtiketa guztiak urrunegi bota nituen, eta azkeneneko jaurtiketan, lurrera erori zitzaidan uztai. Zuri gelditu nintzen, ahaztu egin zitzaidan prestatuta neukan guztia. Uztai bota, komunean sartu eta nolako negar saioa egin nuen.

Merezi izan al zuen horrenbesteko ahaleginak?

Momentu haietan, batzuetan baietz erantzungo nukeen eta besteetan ezetz, lortzen nuen emaitzaren arabera. Maitasun-gorrito harreman moduko bat neukan gimnastika erritmikoarekin, eta obsesio puntu bat ere bai. Asko gustatzen zitzaidan, baina etxera iristean ez nuen nahi izaten inork ezer galdetzerik. Burua martxan izaten nuen denbora guztian: zer egin behar nuen, nola, zer neukan hobetzeko... Bolada batzuetan entrenatzera ere urduri joaten nintzen, eta ez umetan, 16 bat urte nituela baizik. Gainera, lehia handia zegoen gure artean. Asteazken zehar taldean entrenatzen genuen, baina asteburuetan taldekideak lehiakide bihurtzen ziren, eta konturatzen nintzen lagunak ondo egiteak poz ematen zidala, baina tamainan; nahiago nik baino hobeto egiten ez bazuen. Denborarekin eta urteekin ohartzen joan naiz gauzak beste era batera hartu beharra dagoela, lasaiago edo. Eta orain esango nuke baietz, egindakoak merezi izan zuela, orduan bizitaketatik gauza pila bat ikasi ditudalako: ahalegintzearen garrantzia, diziplina, neure burua ezagutzea, kontrolatzea... Naizena naiz horri guztiari esker.

Utzi zenuenetik, izan al duzu gimnastika erritmikora bueltatzeko gogorik?

Ez, eta gainera ez dut uste nire gorputzak ahalko lukeenik. Horrenbeste urtean horrenbeste entrenatzeak bere ondorioak ditu, gorputz

bakoitzak bere mugak ditu, eta gimnastika erritmikoa dagokionean iritsi nintzen nire mugara. Etapa hori bukatu zen.

Praktikatzeari utzi zenion arren, kirol horri lotuta jarraitu duzu beste urte batzuetan...

Umeak entrenatzen ibili naiz ondoren, bai Azkoitia eta bai Legazpi, baita epaile lanetan ere.

Zer moduzko entrenatzailea izan zara?

Nik uste dut entrenatzaile oso gogorra izan naizela. Niri hala erakutsi zidaten, eta ez dut irakasteko beste modurik ezagutzen.

Duela urte eta erdi inguru utzi zenituen gimnastika erritmikoa lotutako jarduerak, eta orain, errugbian hasi zara. Nolatan?

Enpresa batean ari nintzen lanean, ekoizpen departamentuan, eta konfinamendu garaian lanik gabe geratu nintzen. Lasai hartzea erabaki nuen, aurrerantzean zer egin nahi nuen pentsatzeko. Administraziozako ikasketak eginda izan arren, ez nuen neure burua bizitza guztian bulego batean ikusten. Mugimendu gehiago behar nuela iruditzen zitzaidan, eta halaxe, Egokitzen Fisikoko goi mailako zikloa egiten hasi nintzen irailean, Eibarren. Han ezagutu berri nuen gelakide batek komentatu zidan jendea behar zutela Eibar Rugby Taldeko emakumezkoen bigarren talderako, eta probatzera joatea erabaki nuen.

Zerbait bazenekien errugbiari buruz?

Ezer gutxi, noiz edo noiz telebistan ikusita zerbait, baina sekula jokatu gabea nintzen.

Zer moduz joan zen proba?

Ondo. Niri gustatu egin zitzaidan, eta errugbikoek taldean hasteko aukera eman zidaten.

Entrenatzen hasita, zeintzuk izan ziren lehendabiziko inpresioak?

Taldekideek eta entrenatzaileak oso ondo hartu ninduten, egundoko pazientziarekin, dena goitik behera azaldu behar izaten baitzidaten: noiz bota neure burua, noiz joan atzera, noiz aurrera, faltak... Neuk, berriz, traba egiten nuen sentipena neukan hasieran, entrenamendua izorratzen ari nintzaiela, behin eta berriz gelditu behar izaten baitzuten nigatik.

Hilabete batzuk badaramatzazu taldean. Zer moduz orain?

Askoz hobeto; oraindik badaukat zer ikasia, baina asko aurreratu dut. Gainera, entrenatzen hasi eta aste batzuetara lehen taldearekin fitxa egiteko aukera eskaini zidaten. Esan zidaten gustura zeudela nirekin eta iruditzen zitzaizela



Ainhoa Aranbarri.

**"MAITASUN-GORROTO HARREMAN
MODUKO BAT NEUKAN
GIMNASTIKA ERRITMIKOAREKIN"**

**"TRABA EGITEN NUEN SENTIPENA
NUEN HASIERAN, ENTRENAMENDUA
IZORRATZEN ARI NINTZAIELA"**

**"KONTAKTUKO KIROLA DA, ETA
BATZUETAN HARTZEA TOKATZEN DA,
BAINA GEROZ ETA GUTXIAGO"**

denborarekin jokalaria ona izatera irits naitekeela. Hori entzuteak egundoko poza eman zidan, baita egunero entrenatu ahal izateko aukera ere, lehen taldeko jokalaria kirolari erdi-profesionaltzat dituztelako. Astean lautan gimnasiora joaten naiz taldekoekin, hirutan bestelako entrenamendua izaten dugu, eta asteburuetan partida. Oraindik ez dut aukerarik izan lehen taldearekin jokatzeko, baina hori lortzeko lanean jarraituko dut.

Zer du errugbiak erakarri egiten zaizuna?

Taldeko kirola izateak asko laguntzen du, eta taldean dagoen giroa da onena. Era askotako jendea gaude, baina ezin hobeto moldatzen gara. Gainera, entrenamendu guztiak desberdinak izaten dira. Gimnastika erritmikoan, aldiz, koreografia bat izaten nuen, eta hura egin behar izaten nuen behin eta berriro.

Eta jokatzeko, zer moduzko kirola da errugbia? Ematen duen bezain basatia al da?

Kontaktuko kirola da, eta batzuetan hartzea tokatzen da, baina geroz eta gutxiago. Hasieran, golpez beteta iristen nintzen etxera, batez ere ondo erortzen-eta ez nekielako, baina ari naiz ikasten.

Zein da gogorragoa: gimnastika erritmikoa ala errugbia?

Ez dut uste oraindik konparaketa hori egiteko moduan nagoenik, batean 11 urtez aritu nintzelako eta bestean lau hilabete daramatzadalako. Bietan ematen dut daukadan onena, baina oraingoz errugbian nitaz espero dutena eta neure buruaz espero dudana ez da gimnastika erritmikoan zenaren parekoa. Beraz, alde horretatik, eta oraingoz, gimnastika erritmikoa gogorragoa dela esango nuke; aldiz, errugbiak denbora gehiago kentzen dit.

Gimnastika erritmikoan ikasitako zerk balio dizu errugbirako?

Diziplinak eta kirola praktikatzeko orduan jartzen dutan gogoak eta indarrak. Gimnastika erritmikoko entrenatzaileak erakutsitako balioak dira horiek, eta dagoeneko neure parte dira.

Zer asmo dituzu etorkizunerako?

Ikasketei dagokionean, gustatuko litzaidake goi mailako zikloa bukatu eta horrekin zerikusia duen lanen bat topatzea. Kirol arloari dagokionean, berriz, errugbian gogor entrenatzen jarraituko dut, asko daukadalako ikasteko eta hobetzeko; eta gimnastika erritmikoan, gustatuko litzaidake egunen batean berriz epaile lanak egitera bueltatzea. ■■■

Egin zaitez bazkide!

Urtean 25 euro ordainduta proiektu honetako kide zuzena izango zara. Hilero herri aldizkaria etxean jasoko duzu eta bestelako hainbat abantaila izango dituzu.



#IzanMaxizatzaile

Maxizatzen proiektu anitza, parte hartzailea eta irekia da. Independentea, autonomoa, zabala eta herrikoia. Herri proiektu bat da gurea. Topagune eta ekarpen gune izatea dugu helburu. Eta denon artean, euskara bera, komunikazio tresna den aldetik, lantzea eta aberastea. Maxizatzen herri komunikabidea hilabetekariak eta maxizatzen.eus atariak osatzen dute. Bi tresna horiekin komunitate bizi, dinamiko, sortzaile, erakargarri eta saretua osatu nahi dugu. Herritar guztion babesa eta lankidetzat beharko ditugu Maxizatzen Herri Komunikabidea denontzat kalitatezko tresna baliagarria izan dadin.

Bazkide egiteko bi aukera:

- 1 Bidali zure datuak **administrazioa@ukt.eus** helbidera
(bidali beharreko datuak: izen-abizenak, helbidea, herria, telefonoa, jaiotze-data, helbide elektronikoa eta kontu zenbakia).
- 2 Webguneko formularioa bete eta bidali.

Izaera pertsonaleko datuak babesteko abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa jarraituz, jakinarazten dizugu, xedarean arabera biltzen diren datuak Urolako Komunikazio Taldearen titularitatepeko fitxategi automatizatu batean sartuko direla. Era berean, jakinarazten dizugu, eskubidea duzula datu horietara jotzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurkatzeko, eskubide hori Urolako Komunikazio Taldeko Erregistro Orokorrean zuzendu ahal izango duzularik.

Non dago Zakelmari?



Otsaileko Maxizatzen aldizkarian Zakelmari non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 41. orrialdean zegoen ezkutatuta.

Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, Lander Mujikak irabazi du Herrixen merkatarik elkartearen

50 euroko txekia. Datorren hilean, Ogi Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna martxoaren 18a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo maxixatzen@maxixatzen.eus helbide elektronikora.





NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com

Naïke
TATTOO STUDIO

JULIAN ELORZA 5 AZPETA
672 17 89 51




YOKOKIROLAK
www.yokokiolak.com
Kale nagusia 90 - Azkoitia

ZERBER

BURDINDECIA

BEHAR DUZUNERAKO ALOR GUZTIETAKO GAIK AURKITUKO DITUZU GURE BURDINGIAN. INDUSTRIA, ELEKTRIZITATEA, MARGOLARITZA, ETXEA, ITURGINTZA, BRIKOLAJEA ETA ABARREKO TRESNERIA; HALA NOLA, TORLOJUAK, ERRODAMENDUAK, SARRAILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

ZERBERREN
"ZER BER ETA HURAXE"

NAGUSIA, 39 -20720 AZKOITIA - 638 35 31 25
www.ferreteriazerber.com





OGITARTEKOAK
SANDWICHAK ETA HANBURGESAK
ENTZALADAK
RAZIOAK
GARAGARDO ETA ARDO ESKAINTZA ZABALA
TERRAZA HANDIA ZUZENEKO EMANALDIK
KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

ARTISAU PIZZAK
ENTZALADAK
PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK
RAZIOAK
OGITARTEKOAK
ARDO ESKAINTZA ZABALA
SOINU ETA ARGI EKIPO
PAREGABEAK
LARUNBATETAN 06:00 ARTE IREKITA
KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19



LATZ
TABERNA



ALDAKO

SARE ETA INFORMATIKA ZERBITZUAK

SAREAK, IRTEERAK ETA ORDENAGAILU, MUGIKOR ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 92 76
aldako.informatica@gmail.com



Florea
SALESTAR IKASTETXEA
FAMILIAK ETA IKASTETXEA, BAT EGINDA HEZTEN
KONFIANTZAREN PEDAGOGIA
Zatoz, ezagutu gaitzazu
"Ikasleak zoriontsu izatearen giltza konfiantzan dagoelako"

lzarraitz z/g-AZKOITIA
943-85 30 43 • floreaa@floreaa.eus
www.floreaa.eus

ESKELA ZERBITZUA

Maxixatzen.eus
webgunean
eskela jarri nahi?

Jarri harremanetan:
688 84 63 51
erredakzioa@maxixatzen.eus
Kale Nagusia, 62



JARRI HEMEN ZURE IRAGARKIA!

"Atletismoa taldeko kirola izan dadin saiatsu gara"

JOSE ANTONIO ZULAIKA ATLETA


Jose Antonio Zulaikaren (Azkoitia, 1960) eskuetatik ehunka ume azkoitiar pasatu da azken urteetan, eta inon aurkitzekotan bidegorrian izango da, ia beti han ibiltzen baita gaztetxoek gidari lanak egiten. Atletismoan murgiltzea erabaki zuenetik, herria atletismoari josteko orratz garrantzitsueneko bat izan da. Testua: **Andoni Elduaen**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.

Zulaika 18 urte zituenean murgildu zen atletismoaren munduan. Bere aita zenak hartutako bideari ekin zion horrela. "Beti gustatu izan zaidan zerbaitetan hastea erabaki nuen: antxintxika". Halere, gaur berak gazteei ematen dien aholku bat bete gabe hasi zuen atletismoko ibilbidea. 1978. urtean, Donostiako lehen maratoin parte hartu zuen. "Gehiegi prestatu gabe" joan zen probara; izan ere, gogoan du gero zeinen gaizki pasatu behar izan zuen. "Oso gaizki amaitu nuen maratonia. Arratsaldean mezatara joan ginen, eta aita esan zidan Jauna hartzera abiatu ginenean praktetan kaka egin izan bagenu bezala geundela. Oker-okar eginda". Era berean, maratoiaren ondorengo astelehena jai hartu behar izan zuen lanetik. "Gerritik behera bikoitza sentitzen nintzen; oinez ere ezin nuen ibili. Berriz berdina eginez gero, kaleratu egingo ninduela esan zidan nagusiak". Lehen maratoi hura ez zitzaion etsigarria suertatu, ordea, Zulaikari, eta proban berriro parte hartzeko kalkulak ateraz, antxintxika "sarri-sarri" hasi zen.

Garai hartan, atletismoa "desberdina" zela dio, batzuetan korrika egiten zutenak "zorotzat" hartzeraino. "Orain, jende asko ikusten da korrika mendian. Mendira korrika joaten geu hasiko ginen hemen. Zoroak ginela besterik ez genuen entzuten jendearen partetik. Pentsa, Adidas etxea Diego Garciari arropak ematen hasi

zuenan, Garcia lotsatu egiten zen kalean korrika egiten, arropak koloretsuegiak zirelako. Aizpurutxo aldera joaten zen entrenatzera". Mendira joateko hautua zergatik egiten zuten kontatzen jarraitu du. "Maratoiak-eta prestatzeko, lehen ez zeuden oraingo espaloiak eta bidegorriak. Errepidean ibili behar izaten genuen, eta ibilgailuren bat baldin bazetorren, sasi artera baztertu ere bai askotan". Orduan, "sekulako afizioa" zutela dio.

Klub aldetik, ordea, "eskasia" zegoela aitortu du. "Soldadutzatik itzuli nintzenean, Julian Olanorekin batera Donostiara hasi nintzen joaten Atletico San Sebastian taldearekin entrenatzera. Gainera, prestatzaileak aste osorako entrenamenduak ematen zizkigun, guk hemen egin genitzan. Sei egunetan entrenatzen genuen. Olanok-eta jarraitu zuten gero ere Donostiara joaten, baina ni nire kabuz hasi nintzen lanean, eta korrika egiteari utzi egin behar izan nion aldi baterako". Halere, gogoan du Donostiara bueltaka nekatu egin zela jendea, eta 1986. urtean Iraurgi Saskibaloia klubaren atletismoko sekzioa sortzea lortu zutela. "Sekulako hartu-emanak genuen Iraurgirekin, beti ondo moldatu ginen". 1999. ean, baina, bestela pentsatzen hasi ziren. "Gure taldearen harmarria saskibaloia lotuta zegoelako, aldatzea erabaki genuen". Horrela, 2003. urtean sortu zuten Xeye atletismo taldea. Izena jartzeko, ordea, burua nekatu behar izan zuten. "Azkoitiarekin eta Azpeitiarekin lotura





Zulaika eta Pedro Muñoz, elkarrekin lasterka.



Zulaika lagun batekin, Azkoitiko eliz atarian.



Zulaika, Azkoitiko lasterketa batean, atzetik.

zuen zerbait nahi genuen harmarrian, eta bi herriek duten gauzarik zaharrenaz hasi ginen pentsatzen: hizkuntza. Bi herriei *Azkoitixe* eta *Azpeitiye* bezala lotura eginez, Xeye atletismo taldea sortu genuen. 2001. urtean hil zen Diego Garcia, eta hari keinu bat egin nahian, harmarriaren erdian haren irudia jarri genuen bi herrietako izenak ukituz, bata oinarekin eta bestea eskuarekin. Horrela, umeei eta gazteei atletismoko bidea irekitzen hasi ziren.

Atletismoa, taldeko kirola

Xeye taldean hasterako zen Zulaika Ikaskiroleko atletismo begiralea, eta badu orduko oroitzapenik. Bere nahietako bat izan zen bi ikastetxeetako ikasleak elkartu eta taldean entrenatzea. Badu horren inguruko pasadizo bat: "Haur batek sekulako gogoia zuen Ikaskiroleko taldean korrika egiteko, baina Floreaga ikastetxekoa zen. Orduko Ikaskiroleko buruak esan zidan nire ardura ikastolako haurren begiralea izatea zela soilik. Haur hari esan nionean ezingo zuela gurekin gehiago etorri, sekulako negarrak egin zizkidan. Hurrengo egunean haren ama ere kalean ikusi nuen, eta hark ere negar egin zidan. Pena handia eman zidaten". Hori ikusita, arazoa "lehenbailehen konpontzeko ahalegina" egin zuen Zulaikak. Artean, Azkoitiko eta Azpeitiko gazteak Iraurgi Saskibaloiaren atletismo taldean ibiltzen ziren, eta egun batean Olanoren deia jaso zuen Zulaikak. "Zuzendaritzan sartu behar nuela esan zidan, gogoarekin ikusten ninduela eta. Orduan, Ikaskiroleko arduradunari esan nion, aurrerantzean Iraurgi bezala hasiko nintzela umeak entrenatzen. Horrela hasi ginen bi ikastetxeetako ikasleak elkartu eta entrenatzen". Zulaikaren arabera, bi ikastetxeetako ikasleak elkartu eta guztiak batera entrenatzen hasi zen

eskola kirol mailako "lehenen" izan zen atletismo taldea Azkoitian.

Izan Iraurgiren baitan edo izan Xeye taldean, Zulaika "taldeko kirola" sustatzen ahalegindu da beti. "Atletismoa lehen bakartiagoa zen, ezkutuagoan aritzen ginen, bakoitzak sekretuan gordetzen zuen berea. Gu, berriz, hori zabaltzen ahalegindu gara. Atletismoa kirol bakartia izatetik taldeko kirola izatera pasatzen saiatu gara". Eta horren inguruko beste bitxikeria bat ere kontatu du. "Arraten [Eibar, Gipuzkoa] gure taldeko bi korrikalari elkarrekin pasatu ziren helmugatik. Batek orduan amaitzen zuen lasterketa, baina besteari itzuli bat gelditzen zitzaion artean. Gogoan dut, amaitu ez zuen hark niri begiratuta 'Zulaika irabazi dugu' nola oihukatzen zidan. Gauza horiei balio handia eman izan diet".

Sortzailea eta antolatzailea

Atletismoan ibiliagatik, gizarteko erronkak eta bururatutako ideiak aurrera eramateko beharra sentitu izan du Zulaikak. Tipi-Ttapa emakumeen taldea sortzeko eskakizuna jaso zuenean, esaterako, ez zitzaion ezezkoa ematea bururatu ere egin. "Tipi-Ttapa emakume baten eskaera bategatik sortu zen. Hark esaten zidan umeekin ibiltzen nintzela baita zaharragoekin ere, eta noiz pentsatzen nuen emakumeekin hastea. Zortzi pertsona elkartzen baziren abisatzeko eskatu

Jose Antonio Zulaika

- **Jaiotza urtea:** 1960.
- **Lasterketa bat:** Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia. Eskola kirolean, Ikaskirol krosa.
- **Antxintxikarako momentu onena...**: goizeko freskura.



Ikaskirol kros batean omenaldia jaso zuen.



Xeyeke korrikalari gazteekin, Espainiako lehiari.



Zulaika, Diego Garciaren eskulturari.

nion. Eta deitu zidan, zortzi ez, hamar emakume bildu zirela esateko". Taldetxoa elkartuta, taldeari forma ematen hasi ziren segituan. "Kartelak-eta itsasten hasi ginen kalean, eta Elkargunean jarri genuen bilerarako hitzordua. 30 bat lagunentzako prestatu genuen aretoa, eta 50 emakume etorri ziren gure harridurarako. Gero, 45 emakumek eman zuten izena taldean".

Lasterketa solidarioa ere martxan jarri zuten duela sei urte. Xeye taldeko kide baten haurrak minbizia zuen orduan, eta hari laguntzeko "zerbait" egin behar zutela otu zitzaion. "Tipi-Ttapa taldeko emakumeei esan nien lasterketa solidario bat egitearen ideia nuela. Segituan, guztiak laguntzeko prest agertu ziren. Antolatzen hasi ginen pixkanaka. Taldea ez zen korrika egiteko bakarrik sortu, herrira begira zerbait antolatzeko ere bai. Horretan dihardugu bi urtetik behin".

Hango eta hemengo probetako antolatzailea ere bada Zulaika, Azkoitia-Azpeitia nazioarteko maratoi erdian dabil lehen ediziotik. Bere ardura da Azkoitiko ibilbidea egitea, Azkoitirako boluntarioak aurkitzea, eta dortsalak zein kamisetak banatzea. Gainera, lasterketako zuzendaria da, berak irekitzen du lasterketaren bidea moto gainean.

Marka, duela 40 urte



Proba bakarren batzuk irabazitakoa da Zulaika, eta bereziki gogoan du Mutrikuko herri lasterketan lortutako garaipena. 48 urte zituela, hiru azkoitiarrek irabazi zuten lasterketa hura, Pedro Muñozek gizonezkoetan, Olatz Gabilondok emakumezkoetan eta berak beterranoetan. Lorpenen atalean, ordea, badu bat berezia; izan ere, duela 40 urte egindako marka batek berea izaten jarraitzen du oraindik. Duela 66 urte, Azkoitiko bi kuadrillak apustua jokatu zuten,

herritik Debara korrika mendiz ordu eta erdian iristeko gai ziren argitzeko. Han parte hartu zutenek, Azkoitiko eta Itziarko elizak ukitu zituzten Debako plazara iritsi aurretik. Apustu hartan, Zulaikaren aita zena beste baten laguntzaile aritu zen. Debara iristeko ordu bat, 28 minutu eta 30 segundo behar izan zituzten haiek.

Mendian korrika ibiltzen zelako edo, Zulaikaren aita sarri aipatzen zuen Azkoitia eta Deba arteko apustu hura. "Haiek egindako marka hobetuko nuela esan nion 19 urterekin, baina berak erakutsi beharko zizkidala bideak. Lehenik, Azkoititik bere baserrirainoko bidea erakutsi zidan, handik egiten baitzuen pasadizoa ibilbideak. Hamar ordu lan egin, etxera joan, jantzi eta mendira joaten nintzen. Amak askotan entsalada jartzen zidan aurrean, eta mendira joatea baino hura jatea hobe ez al nuen galdetzen zidan. Batzuetan lortu zuen, baina oso serio hartu nuen kontua. Halako batean, ikasi nuen ibilbide osoa, eta probatzea ere erabaki nuen". Zulaikak gogoratzen du ibilbidea osorik egin zuen probako aldiak bareak heldu ziola, eta ordu bat eta 45 minutu behar izan zituela Debara iristeko. Halere, ez zuen errenditu pasadizo gogor hark. "Gogorra zela ikusi nuen, baina soldadutzara joan aurretik saiakera egingo nuela erabaki nuen". Soldadutzara joan aurreko astean egin zuen marka saiakera Zulaikak, 1980. eko urriaren 6an; bere aita-eta egin zuten egun berean, baina 26 urte geroago. 08:00etan Azkoitiko eliz ataritik abiatuta, aurretik jarrita zegoen denbora hobetzea lortu zuen Zulaikak. Ordu bate eta 26 minutu behar izan zituen Azkoititik Debara iristeko. Egungo gazteek bere marka hobetuko luketelakoan, Zulaikak badu gogoa gazteei ibilbide hura erakusteko. Batek daki egunen batean inork saiakerarik egingo duen. Batek daki inor Zulaikak egin duen lan guztia berdintzera iritsiko den. ■■■■

Handitik txikira

Makila-zomorro hauek neurriaren arabera ordenatu behar dira. Hau da, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 8.



Zein arraio!



Maripurtzil bihurri horrek zomorrotxo bat sartu nahi dio lagun bati patrikan. Ea asmatzen duzun zein aukeratu duen:

- Errepikatuta dago baina ez da ugariena • Ipurdirik ez du agerian • Ez du eztenik, ezta tronparik ere • Ezin du hegan egin • Sei zango ditu • Aho zabalean hortzik baduela badakigu, baina ez zaizkio ikusten • Oso bista aparta dela esan liteke.



itzala


Zein da zomorro itsusi honen itzal zuzena?

Oinutsik


Ehunzango gaixo honek oinetakoak falta ditu. Marrastuko al zenizkioke katuska polit-politak, lokatzetan sartzeko?



Labirintoa




Lagundu Pelloziriri zomorro lotsagabe horri ihes egiten. Honokoak dira jarraitu beharreko pausoak: 1 eskuak garbitu, 2 maskara erabili, distantzia errespetatu, txertoa jarri. Gogoratu pausoen segida errespetatu egin behar dela eta laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eaginez, baina inoiz ez diagonalen.




Ostiralak badu
beste izen
bat: BARIKU.
Osa itazu
lauki zuriak
hitz hori
osatzen duten
letrak kontuan
hartuta (B,
A, R, I, K eta
U). Gogoratu,
letra bakoitzak
behin agertu
behar duela
zutabe, lerro
eta areia
bakoitzeko.

Sudoku



ZazpiKoa

Aurkitu bi zomorroen arteko 7 aldeak.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Arenas, musikaren eta herrigintzaren uztarritik

TESTUA: ANDONI ELDUAEN

ARGAZKIAK: ANDONI ELDUAEN ETA
UTZITAKOAK

Iaz 60 urte bete zituen Angel Mari Arenasek (Azkoitia, 1950) txistularien alboko danbor jotzaile lanetan. Musikari lotutako familian jaio zen, eta bere aita zenak hartutako bideari eutsi dio urteetan zehar. "Musika tresnak-eta konpontzen zituen aita; musikazale amorratua zen. Hura ere 9-10 urterekin hasi zen txistua jotzen. Garai batean, udaletxean zegoen entseatzeko lekua, eta hara igotzeko arazoak sortu zitzaizkionean utzi zion txistulari taldeari. Omenaldia egin zioten, eta Azkoitiko urrezko lehen bereizgarria hari jarri zioten".

Arenas gazte hasi zen danborra jotzen, baina Errege Magoek ekarritako txirulatxo jotzea zen bere umetako nahia. Danborrarekin lotura nola egin zuen kontatu du: "Nire osaba gazte hil zen. Hura hil aurretik, ordea, kukurruku eztularekin gaixo nengoen. Mojek, gerora, zorte handia izan nuela esan zidaten; izan ere, orduan kukurruku eztularekin hil egiten zen jendea. Gaixorik nengoen aldi hartan, osaba zenak bere burua hiltzear ikusi zuen, eta bere hileta antolatzeko kontzientziako gidaria eta Juan Elorza *Txanbolin* deitu zituen. Osabak

danbor bat erosi berria zuen, eta Txanbolini esan zion danbor hura niretzat gordetzeko, uste baitzuen danbor jotzailea izango nintzela. Pakete batean gorde zuen danborra, eta lehen aldiz jo nuen egunean ireki nuen aurrenekoz pakete hura". "Etxean" ikasi zuen osabagandik jasotako danbor hura jotzen. "Azkoitian abarketa asko egiten ziren sasoi hartan, eta txorta lana betidanik ezagutu zen gurean. Txapelak ere asko egiten ziren orduan, eta lanean ari ziren guztien erdian taula bat jarrita ikasi nuen erredobleak egiten. Zenbat jasan behar izan ote zuten haiek nik ateratako zarata hura!". 61 urteren ondoren, Arenasek danborra jotzen jarraitzen du, Txalkor txistulari taldean. Oraindik orain, osabaren ondarean jasotako danbor hura erabiltzen du.

Imanol Elias historialariaren esanetan, 1559. urtetik izan dira txistulariak Azkoitian. Halere, etxean entzundakoagatik, 1939. urtetik aurrerako historia ezagutzen du Arenasek. Garai hartan,

**TRINO ARRUABARRENA
'TXITIE'-K UTZITAKO
TOKIA HARTU ZUEN
UDAL TXISTULARI
BANDAN, 9 URTEREKin**

Udal Txistulari Bandan txistuarekin aritzen ziren Antonio Arenas *Txalkor*, Angel Mari Arenasen aita, eta Txanbolin; Jose Mari Orbegozok, Angel Mari Arenasen osabak, berriz, danborra jotzen zuen. Hura hil zenean, 1951. urtean, Candido Beristain eta Trino Arruabarrena *Txitie* batu ziren Udal Txistulari Bandara, lehena txistuarekin eta bigarrena danborrarekin. Hemeretzi urtez aritu zen laukotea elkarrekin, Txitiek kide izateari utzi zion arte. Hain zuzen ere, orduan iritsi zen Arenasen txanda: Txitiek Udal Txistulari Bandan utzitako lekua hartu zuen 9 urte zituela. Beristain eta Txanbolin Arenasentzat "bigarren aita" izan dira. "Ume-umetatik hasi nintzen haiekin, eta nire aitarekin batera laurok osatu genuen 30 urtean Udal Txistulari Banda". Igande goizetan diana egiten zuten herrian zehar, eta arratsaldean dantzaldiak eskaintzen zituzten plazan. "Udako eta Gabonetako aparteko ordainsariak ere jasotzen genituen, pentsa". 1990. urtean amaitu zen Azkoitiko Udal Txistulari Bandaren ibilbidea, eta laukoteak omenaldi beroa jaso zuen. Berehala jaio zen, baina, txistulari talde haren oinordetza hartu zuen Txalkor txistulari taldea. Arenasen aitaren ezizena hartu zuen



txistulari taldeak. Pello Larrañaga *Axiri* izan zen taldearen bultzatzailea eta sortzailea. "Guk ezagutu dugun aldian txistua ez da sekula indarrean egon Azkoitian. Larrañagak egindako lanagatik izan ez balitz, zaila izango zatekeen 1990. urtetik aurrera Azkoitian txistulari talde bat egotea. Gainera, taldeari Txalkor izena jartzea ikaragarri eskertzen diot, eta segitu beharra sentitzen dut".

Musika bandako kide

Arenas ezaguna da, besteak beste, bizitza musikari eskaini diolako. Ez da beti, baina, txistulari taldeari lotuta egon, Udal Musika Bandako kidea ere izan zen. 4 urte zituenetik 9 bete arte, Udal Musika Bandako "maskota" izan zen. Musikariei partiturak eman eta haiek jasotzen zituenari deitzen zioten maskota. Orduko pasadizo bat gogorarazi du: "Behin, Elgoibarrera joan ginen bandarekin, eta nire ama ere joan zen niri laguntzera. Musika bandarekin beste herri batera joandakoan, kalejira egin ohi zen, eta gu ikusten kalean zegoen batek horrela esan zuen ozen: 'Begira, badakarte nanoa'. Amak hori entzun zuenean sekulako berotua harrapatu zuen, eta pertsona hari azalpenak eman behar izan zizkion".

Gero, kaxa jotzen hasi zen musika bandan. 60ko

hamarkadan sartu aurretik, Udal Musika Bandari boikota egon zion hainbatek, eta kideen erdiek utzi zuten. Orduan, bere aitak eta Txanbolin zuzendariak erabaki zuten, kaxa jotzen ikasi behar zuela musika bandan hasteko. "Musika banda derrigorrean antolatu behar izan zuten, danbor jotzailerik ez zegoelako. 10 urte bete gabe izango nituen, baina behintzat osatu genuen banda". 28 urtean zehar aritu zen gero Arenas Udal Musika Bandan. Kaxaz gain, dunbala eta txapak ere jo zituen. Halaber, Azpeitiko, Zumarragako eta Zestoako bandekin eta Xoxote txarangarekin kolaboratu zuen.

Musikari ezagunekin elkarlanean

Hainbat euskal musikarirekin lan egiteko aukera ere izan du. 18 urte bete zituenean, bateria erostea erabaki zuen, eta orduan ateak ireki zitzaizkion. Ez Dok Amairu mugimenduko kideekin batera Euskal Herrian zehar kontzertuak eskaini zituen. "Benito Lertxundiren lehen bateria jotzailea izan nintzen. Julian Lekuona Aizpurutxoko orduko apaizak eta Lertxundik Ez Dok Amairun abesten zuten. Biek laguntzaile talde bat nahi zuten, ordura arte gitarra bakarrik jotzen zutelako. Hori ikusita, Jose Luis Frantzesenak, Mikel Sudupek eta hirurok taldea osatu genuen. Ez Dok Amairukoei

laguntzen hasi ginen. Jose Mari Iriondoren etxean egiten genituen entseguak. Mugimenduak estimu handia zuen orduan; jaialdi guztietan betetzen ziren aretoak, eta hori ikustea ikaragarritzko poza zen. Harreman handia egin nuen mugimendukoekin". Bi edo hiru urtean ibili zen haiekin. Gerora, Suduperekin eta Frantzesenarekin, hainbat ezkontza girotu zituen Arenasek. Iñaki Garmendia *Laja* trikitilariarekin ere erromeri eta ezkontzetan ibili zen.

Orkestina edo jazbana ere sortu zuten. Taldeak igande iluntzetan abesti dantzagarriak eskaintzen zituen Azkoitian, Garizuma garaian izan ezik. Halere, horren inguruan protestak izan zirela gogoratu du. "Musikari gazte talde batek Garizuman jotzea eskatu zuen, gero udako igandeak libratzeko. Udalak onartu egin zuen haien proposamena. Halere, eta udako igandeak dantzaldirik gabe ez uzteko, txistulari bandako laurok orkestina eratu genuen. Alkandora berriak erosi eta aita tronpetarekin, Txanbolin saxofoiarekin, Beristain akordeoiarekin eta ni bateriarekin hasi ginen kontzertuak eskaintzen. Ez genion izenik jarri taldeari, baina ez genuen inoiz hutsik egin". Hiru bat urtean eman zituzten kontzertuak.



Txalkor txistulari taldeko kideekin.



Udal txistulari bandaren azken eguneko argazkia.



Arenas, Laja zenarekin batera.



Arenas, eskuinean, 'maskota' lanak egiten; ezkerrean, Txanbolin.

Alor soziala mugarri

Musikaz gain, Arenasek gizarte alorrean lan eskerga handia egin du herriaren alde. 1974. urtean, Gazteen Gurutze Gorria jarri zuten martxan, sorospengune bat sortzeko eta gazteek soldadutza herrian eginez behar handiena zutenei laguntzeko. "Orduan, gazteek beldurgarri kolaboratzen zuten. Horregatik eduki genuen herrian gauzak egiteko gaitasuna". Gurutze Gorriko taldeak bultzatuta, Arrasateko Ospitaleko Psikiatrikoan bisitak egiten hasi ziren. Urtean birritan joaten ziren ile-apaintzaileak; abuztuan, Ekintza Katolikoko emakumeak; urrian, gazteak, eta gizon-emakumeek osatutako danborrada egiten zuten; Gabonetan, dantzariak. Ekintza nagusia maiatzean egiten zuten. 500 bat lagunek parte hartzen zuten irteeran, eta pilotariak zein futbolariak, trikitilariak, dultzaineroak, txistulariak eta txaranga joaten ziren hara, bertan zauden gaixoei "eguna argitzera". Horrela ibili ziren, gutxienez sei urtean. "Handik bueltan, Atraskuaan elkartzen ginen afaltzeko, eta ondoren herrian kalejira egiten genuen".

Arrasateko Ospitaleko Psikiatrikotik Azkoitira ere etorri ziren hango gaixoak, eta egun hura oroitzapen bereziarekin gogoratzen du Arenasek. 1977. urtean, berriz, Palenciako (Gaztela eta Leon,

Espainia) San Luis psikiatrikora gonbidatu zituzten azkoitiarrak, eta hiru urtez segidan joan ziren hara.

Ikatzak banatzen

"Beste jende askorekin batera", bestelako ekintza batzuetan ere parte hartu zuen Arenasek. Gogoan du ikatzaren bueltan Azkoitian sortu zen arazoari nola erantzun zioten. "Orduan, etxe askotan ez zegoen butano gasik, eta sukalde askotan ikatza erabiltzen zen. Daniel Agirre *Krispin* zen herrian ikatza banatzen zuena, baina hura gaixotu egin zen. Ikatza erabiltzen zuten gehienak adinekoak ziren, eta ikaztegiira joan behar izaten zuten ikatz zakuen bila. Gero, eskaileretatik igo behar izaten zituzten etxera haiek". Arazo horren aurrean, irtenbide bila hasi ziren. "Kuadrila eta talde desberdinetako kideak elkartu ginen, eta zapatuetan ikatza banatzen hasi ginen kamioi bat hartuta. Diruz irabazitakoa eta propinetan jasotakoa Krispinen familiari ematen genion". Larunbat askotan jardun zuten ikazkinaren lana egiten.

San Jose egoitza

San Jose Egoitzaren sorreran ere bere alea jarri zuen Arenasek. Miserikordiari irtenbide bat aurkitzen hasi ziren. "Eraikin hura ez zegoen egoera onenean. Ibaiaren ondoan zegoelako-edo sekulako hezetasuna zuen etxeak, ez zuen igogailurik eta

gelak oso handiak eta bateratuak ziren". Era berean, azkoitiarrak gogoan du Arrasateko Ospitale Psikiatrikoan 27 azkoitiar zeudela orduan. "Medikuen arabera, han zeudenetatik askok hemen bizitzeko aukera zuten, beti ere haiei erantzuteko egoitza duin bat edukita".

1978. urtean iritsi zen Oñatitik hona Josefa Villalba Ama Nagusia, eta hark Miserikordia eraikina konpontzeko edo egoitza berria egiteko laguntza eskatu zuen. "Horrela, elkarte elkarte hasi ginen ginen mojararekin arazoa zein zein azaltzen. Lanekin hasteko dirua behar genuen, eta Madrildik dirua lortzeko lanei ekitea eskatzen ziguten. Horren aurrean, udalak eta eragileek zein norbanakoek osatutako batzorde bat eratu zen. Udalak bazituen lurrak, baina egoitza egiteko dirua falta zen. Izan ere, aurrekontua 80-90 milioi pezetakoa zen".

Gero, Inazio Uria enpresari zenarengana jo zuen Arenasek. "Obrak hark egingo zituela jakinda, hondeatzailea hango lurretan sartuko al zuen galdetu nion. Makina ekarri zuen Uriak, eta Santa Kutzen ere beste lan batzuk egiten ari zirela baliatuta, buzoa eta kaskoa jantzita argazkia atera genuen, Madrildik lanean hasi ginela ikusteko". Urrats hori egin ondoren, herritarren diru ekarpenak lortzen saiatu ziren. "Langileengana jo genuen



Arenas, behean erdian, Azkoitiko pilotalekuan izan zen Ez Dok Amairuren kontzertu batean.

orduan, hilean 100 pezeta emateko prest ote zeuden galdetzeko. 100 pezetako ekarpena egiteko hiru urteko konpromisoa hartu zuen bakoitzak. Enpresetako nagusiengana ere jo genuen, eta nagusiei galdetu genien langilei bakoitzeko beste 100 emateko prest al zeuden. 16 milioi pezeta lortu genituen modu horretan, eta egoitza eraikitzen hasi ziren". Udalak 42 milioi pezetako diru ekarpena egin zuen, Espainiako Ministeriotik 30 milioi jaso zituzten, eta gainerako 16 milioiak herritarren eta enpresen bitartez lortu zituzten. "Kudeaketa asko eta lan ikaragarriren ondoren egoitzako lanak hasi ziren, eta 1981. urtean inauguratu zen egungo San Jose egoitza".

1974. urtean, kooperatiba munduan murgiltzea erabaki

zuen. "Lanpostu gutxi zegoen herrian, bereziki emakumeentzat. Laboral Kutxaren bulegoak oso ondo funtzionatzen zuen orduan; izan ere, irailerako betetzen zituen urte guztirako egindako aurreikuspenak. Oso harreman ona genuen entitate harekin". Luis Iriondo azkoitiarra zen garai hartan Laboral Kutxako produkzio zuzendaria. Batzorde bat eratu zuten hasteko, Laboral Kutxak Basarteko industrialdean lursailak erosi zituen gero, eta 1980. urtean Basarte izeneko kooperatiba sortu zuten. "Kudeaketa lanen eta porrot batzuen ondoren, tapizatutako altzariak egiten hasi ginen. Lantzen genuen produktua erraz kopia zitekeen, ordea". 1983. urteko abuztuan, ordea, ezbeharra gertatu zen lantegian. "Langileak oporretan zeudela,

su hartu zuen, eta kalte handiak izan zituen. Kasualitatez, gainera, egun hartan uholdeak izan ziren herrian". Urte berean, Danona kooperatibak bere gain hartu zuen Basarte.

Ikastetxeko egunerokotasuna ere ezagutu zuen Arenasek, Floreaga Ikastetxeko guraso batzordeko presidentea izan zen, 1984. urtetik 1993. urtera. "Jende trebea elkartu ginen batzordean, eta bikain eraman genuen guztia. Lan asko egin ahal izan genuen". Besteak beste, Xabier Sagarzazuren oroimenezko futbol txapelketa, Kultur Jardunaldiak eta Gabon kanten jaialdia antolatu zituzten bera presidentea zen garaian. "Saltsa guztietako perexila" izan dela dio Arenasek. Saltsa guztietarako erabilitako osagaia, ordea, beti da baliagarria. ■



Larunbatero, azoka

COVID-19ak eragindako izurriteak Azkoitiko larunbateroko azokari ere eragin dio. Segurtasun neurriak bermatzeko, azoka plazatik kanpoko postuen erdiak jartzen dira; ondorioz, hamabostean behin jartzeko aukera dute saltzaileek. Azoka plazako baserritarrak, berriz, gustura daude jendeak bertako produktuak erosteko joera hartu duela antzeman dutelako.

Argazkiak eta testuak: **Nerea Uranga.**



1988. URTE INGURUTIK AZOKARA

Pikunieta baserrikoek ogia, madalenak, ardi gazta, arrautzak eta barazkiak saltzen dituzte azoka plazan larunbatero jartzen duten postuan. "Ogiaz eta gatzaz gainera, garaiazen arabera etxean ekoiztutako produktuak ere ekartzen ditugu azokara", azaldu du Pikunietako Luis Olanok. 1988. urte ingurutik jartzen dute postua Azkoitiko asteroko azokan.

LUIS AGUADO AITA-SEMEAK

Luis Frutak fruta saltzaile azkoitiarrak herrian bertan denda du; hala ere, herriko azokan frutak eta barazkiak saltzeko postua jarri ohi du. Egun, azokaren aforoa erdira murriztuta dagoenez, hamabostean behin jartzen dute postua.

Luis Aguado aita eta semea egoten dira saltzen azokan. Aitak 40 bat urte daramatza postuarekin. Lehen herriko plazan izaten zuten salmenta postua; gaur egun, berriz, eliz atarian jartzen dute. "Leku ona" dela diote, "zapatuetan jendea ibiltzen delako joan-etorrian".



MEÑDE ERDIA POSTUAREKIN

Azkoitikoak bertakoak dira Fernandez Embutidos saltzaileak ere. Egun indarrean dagoen azoken gaineko aforo murrizketagatik, hamabostean behin jartzen dute hestebeteak, kontserbak, olioak... saltzeko postua eliz atarian. Manuel Gomez eta Mari Carmen Fernandez senar-emazteak egoten dira salmenta postuan lanean. Azkoitian bakarrak ez, beste hainbat udalerritako azoketan ere saltzen dute: "Gipuzkoan Eibarren, Zumaian, Elgoibarren eta Zestoan eta Bizkaian Berrizen". Gustura daude herriko azokarekin, "ondo saltzen" ari direlako.



ERRIOXATIK AZKOITIRA

Joaquin Gabarri Cenicerokoa (Errioxa, Espainia) da eta handik etortzen da Azkoitiko azokara. Arropa eta lentzeria saltzen ditu. 40 urte inguru daramatza postua jartzen Azkoitiko larunbatetako azokan. Orain, ordea, azokan ezarrita duten aforo murrizketaren ondorioz hamabostean behin jarri ohi du salmenta postua. Kexu da neurri horrekin: "Nahiko gaizki gabilta, gero eta postu gutxiago jende gutxiago ibiltzen da, eta dirua galtzen ari gara. Uste dut, gainera, Azkoitian postu denak jartzeko nahiko toki badagoela".

Azkoitian ez ezik beste azoka batzuetan ere izaten da: "Nafarroan Altsasun eta Gipuzkoan Mutrikun, Arrasaten eta Elduain".



"SALMENTA JAITSI DA"

Ordiziatik (Gipuzkoa) etortzen da azokara Fall Amsatou. Larruzko poltsak, diruzorroak nahiz gerrikoak, aterkiak, galtzerdiak eta beste hainbat produktu saltzen ditu. Amsatou ere ez dago gustura postuen aforo murrizketarekin. "Gaizki gabilta, ez dabil jenderik eta ez dugu ezer saltzen". Hainbat azokatan jartzen du postua: "Gipuzkoan Donostian, Ordizian, Lazkaon eta Legazpin eta Nafarroan Agurainen".



BELAUNALDI ALDAKETA

Korteta baserriko Alaitz Aberdik azoka plazaren barruan jartzen du salmenta postua larunbatetako. Garaian garaiko produktuak saltzen ditu: barazkiak, gazta, arrautzak, esnea... "Ama etortzen zen lehen azokara, baina orain ni etortzen naiz", dio. Izurritearen ondorioz, azoka barruan ere postuen artean distantzia gehiago izaten dute orain, hala ere gustura dago Alberdi: "COVIDaren kontu honekin, jendeak gehiago erosten ditu baserriko produktuak".

MUGIMENDUA ATZEMANDA

40 bat urte daramatzate Martirieta auzoko Urteaga baserrikoek azokan postua jartzen. Julia Alberdi jaitxi ohi da orain azokara, saltzera: "Sasoian sasoikoa eta etxean dagoena saltzen dugu: ardi esnea, arrautzak, barazkiak, gazta...". Ardi esnearen garaian, ostiraletan ere jartzen du postua azoka plazan.

Azkenaldian, ostiral eta larunbatetan azoka plazan "mugimendua antzematen" dela adierazi du Alberdik: "Garaiko eta bertako produktuak erosteko joera-edo hartu dute herritarrek".





10 URTE ZITUENETIK PLAZAN

Jesus Clementek 40 urtetik gora daramatza Azkoitiko larunbatetako azokan postua jartzen, haren gurasoek baina, lehenagotik jartzen zuten: "Orain dela 65-70 urte hasiko ziren haiek azokara etortzen. Ni, berriz, umetan hasi nintzen, 10 bat urte nituela. Opilak, fruitu lehorrak, gozokiak. olibak eta ozpinetako produktuak nahiz kontserbak saltzen ditu Clementek. Egun, COVID-19aren pandemia dela eta Jaurlaritzak azoken gainean ateratako dekretuaren ondorioz, herrian astero postua jarri beharrean, hamabostean behin jartzen du, eta "lanez leporaino" ibiltzen dela dio. Gipuzkoan, Elgoibarko eta Mutrikuko azokak ere egiten ditu eta Bizkaian, Berrizkoa.



LOPETEGI ANAI-ARREBAK

Jose Kruz eta Guadalupe Lopetegi anai-arrebak Lezokoak (Gipuzkoa) dira, eta herriz herri gazitutako bakailaoa eta lekaleak saltzen ibiltzen dira. "Gure aita azokaz azoka hasi zela 60 urte inguru dira, eta guk segida eman diogu. Mutil koskorretan hasi nintzen aitarekin lanean, eta egun 47 dauzkatz". Gernikako (Bizkaia) eta Eibarko, Bergarako eta Hernaniko (Gipuzkoa) azoketara ere joaten dira saltzera.



40 URTE AZOKAZ AZOKA

Fruta eta barazkiak saltzera etortzen da Azkoitiko azokara Costanstino Rueda Zumarragatik. Azpeitiko, Zumarragako, Tolosako, Zumaiaiko, Aretxabaletako eta Beasaingo azoketan ere ipintzen du postua. Azokako postuen aforoa erdira jaitsi dutelako haserre da: "Azkoitian eta Azpeitian bakarrik betetzen da neurri hori. Gainera, Azkoitian, nahiko leku dago denontzat; toki arazorik ez dago hemen".

AZKOITIKOA, AZKOITIAN

Francisco Godoyk 35 urte inguru daramatza azokaz azoka arropa saltzen. Gipuzkoan, Azpeitiko eta Mutrikuko azoketan ere jartzen du postua, baita Bizkaian Lekeitiokoan eta Markinakoan ere. Eliz atarian eta Plaza Berrin postua jartzen duten beste saltzaile batzuk bezalaxe, kexu da astero postua jarri beharrean, hamabostean behin jartzeko aukera dutelako. "Segurtasun distantziak beteta postuak jartzeko toki faltarik ez dago Azkoitian, 15-16 postu besterik ez gara-eta azoka plazatik kanpo postua jartzen dugunak". ■



Burbuilak




MAITE LOPEZ LAS HERAS

Aitorpen batekin hasiko naiz: ikaragarri atsegin dut objektu hauskorrek biltzeko erabiltzen den plastikozko bilgailuko burbuilak lehertzea. Améliek eskua lekalez beteriko zakuan sartzean sekulako gozamena sentitzen zuen, eta niri, berriz, egundoko plazera ematen dit atzamarretatik ateratako zart soinua entzuteak. Nork bere astoari egiten dio arre. Guztiak esplotatu arte ezin geratu. Albeolo-film izen tekniko duen bilgarria lau-lau utzi behar izaten dut behin hasiz gero. Zart eta zart, denak zanpatu arte, zart eta zart plastikozko azaletik airezko baba guztiak desagerrarazi arte.

Aitzitik, globoen eztandari izua diot benetan. Ligerifobia omen da bat-bateko hots ozenek batzuei ematen digun beldurraren izena. Améliek ere bazuen berea, ez pentsa. Harena fobia soziala zen. Dena den, orain, bizirik balego, burbuiletan sartuta bizi behar dugun garai aldakor honetan, lasaiago biziko litzateke, giza harremanak minimora murriztutako kale hutsetan barrena paseatuz.

Horiek horrela, aurrekoan lagun batek emandako gomendioaz luze pentsatu dut, eta izurra izurtzera iritsi naiz, fobiaren fobiara, alegia. "Ez ezan eduki umea burbuila batean sartuta eta eraman haurtzaindegira; ederki etorriko



zaion beste haurtxoeekin sozializatzea!". Eta nireak poulaintarrenak duen beldur bera izan ez dezan, lagunari jaramon egin, eta nire etxeko burbuilatik ikastolakora eraman dut ene seme koitadua. Zart!

Beste behin, berriz, etxera nindoala, aldameneko bizilagunarekin topo egin eta kafe bat hartzera joateko gonbita egin zidan, *sine die*, eskerrak. Harrituta baina pozarren hartu nuen hasieran haren proposamena, eder egiten niolakoan, nirekin geratzeko gogoaz zuela sineskor uste izan nuelako, "Bebarru berekoak izanda burbuila berekoak gaituen eta!" bota zuen arte. Zart!

Gogoko nuen, bestalde, txikitan xaboi-burbuilen hauskortasuna behatzea. Magikoa iruditzen zitzaidan potea astindu, tapoia askatu,

arnasa sakon hartu eta putz egitearen indar zehatza kalkulatu behar izatea punpuilak errenkada garden eta dotorean zeruranzko bidaiarantz bultzatzeko. Bunbuiloak lehertzeko, alabaina, ez da orratzik behar, aski baita elkar ukitzea eztanda egin eta biak ala biak supituan desagertzeko. Egun, oster, musukoak ufakoa eragotzita, ez dago burbuilei zart egingo dien haur-hatzik.

Varron latindar idazlea aspaldi oharatu zen gizakiaren ahuleziaz, gehienbat, adinarekin lotutako ajeez atsekabetu zenean. Eta halaxe adierazi zuen *Rerum rusticarum* liburuan: *homo bulla est* (gizakia burbuila bat da). Ez zen Sentikortasun Kimiko Anizkuna pairatzen dutenei buruz ari, zahardadeari buruz baizik. Gu guztioi buruz, finean. Zart! ■

ZUZENEKO EKITALDIEN EMISIOAK STREAMING BIDEZ

Bezeroaren
webgunetik edota
gure hedabideen
bitartez



**EKITALDI EDO SAIO
BEREZIREN BAT
ANTOLATZEKOTAN
BAZARA, HEMENTXE
GAUDE, BERTAKOAK
GARELAKO**

943-81 38 41
gukazerbitzuak@ukt.eus

GUKA
ZERBITZUAK

Hizkuntzak giltza



AITOR ARRUTI REZABAL

Bizitza ate ugariko etxea baldin balitz, ate bakoitzak sarraila itxi bat izango luke. Ate bakoitzaren atzean misterio liluragarri bana legoke, bizimodu, jolas eta jakintza apainez mozturrotuta. Ate horiek zabaltzeko giltzak dira hizkuntzak.

Cristina Garmendia Mendizabal donostiarra da, biologian doktorea, Zapateroren Espainiako gobernuan Zientzia eta Berrikuntza ministro izana eta Cotec Berrikuntza fundazioko presidentea, besteak beste. Ministro zela egin zioten elkarrizketa batean, kazetariak galdetu zion, aita Idiazabalgo euskalduna izanda, ea euskaraz hitz egiten ba al zekien. Garmendiak ezetz, ez zekiela; aita zenak ez zuela espainolik ikasi hamazazpi urte bete arte, baina, hala zioen ministroak: "sentitzen dut, gure garaian euskara bi urtez soilik ikasten zen". Erantzutean, haren ikastetxe izandako kolegio frantsesari buruz ariko zen, ez ordurako abian ziren ikastolez. Etxekoei eskertzeko omen zeukan bere kabuz pentsatzen erakutsi izana.

Beste donostiar batek, Iñaki Gabilondo kazetariak, Rafael Yuste neurobiologo madrildarrari egindako elkarrizketa ikusi nuen beste behin. New Yorkeko Columbia unibertsitateko ikertzailea da,

Biologia Zientzietako eta Neurobiologiako katedraduna, Obamaren administrazioko BRAIN ekimen ospetsuaren bultzatzailea.

Rafael Yuste euskara ikasten ari zen elkarrizketa garaian; Oñatiko euskalkia, zehazki. Gabilondok, zientzialariak Columbian "gure antzinako hizkuntza maitea" ikasteaz harrituta, azentu kaskarreko euskaraz galdetu zion: "Zergatik?". "Euskara maite dudalako" erantzun zion Yustek. Haren iritziz, "euskara Europa osoaren giza kultur katedrala da, europar guztiok ikasi beharko genuke. Egitura gramatikal zehatz sinestezina dauka, eta mundua deskribatzeko modu zeharo zuzena". "Hurrengo elkarrizketa euskaraz egingo dugu", bota zion Gabilondori; lan txarra euskara sentituz hitz eginez baino gehiago dakienarentzat.

Jose Saramagori Agenda Latinoamerikarrean irakurri nionez, Lurrean jendea goseak dagoen bitartean ez litzateke Martera joateko espedizioetan xentimorik gastatu behar. Norbera ondo egoteko, ingurukoak ere aseta badaude hobe, janariz eta jakitez; ase ostean, misterioen ateetara jakin-minez iritsi gaitezke. Zabaltzeko giltzak eskuratu beharko ditugu, nork bere etxekoa galdu gabe. Hala ulertu zuen Yustek. ■

Bertsoa paperean

Gaia: Martxoak 8
Doinua: Eserlekua.
Egilea: Onditz Alberdi
Gogortza

Martxoak 8 egun indartsu eta egun nabarmena.
Azken urtetan aldatzen joan da pixkanaka hau dena.
Oraindik ez da guztiz aldatu hori da gure problema.
Atera zure onena, ez galdu itxaropena, borroka hon(e)tan egin dezagun gure oihurik ozenena, gaur garenetik irtengo baita bihar izango garena.

Mundu batean sarri bereizten ditugu beste bi mundu.
Berdintasuna lortu nahi dugu hori da gure helburu.
Etxeratzean beti ez gara sentitzen horren seguru, gure kezka ta apuru bihurtzen da gure gudu.
Gauza guztiak neurri berera parekatu nahi ditugu, maiz zapalduak izanagatik zutik jarraitzen baitugu.



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukalde
bainugela ...
leihoak etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA · ☎ 943-14 34 43 · www.biyona.net

LANBIDE HEZIKETA

ATE IREKI BIRTUALA MARTXOAK 17 18:00

info gehiago, gure
webgune eta sare
sozialetan!



www.armeriaeskola.eus

"Mende bat biharrian"



**NAZIOARTEKOTZA
AUKERAK**

Europa/Mundurako bekak
Zikloak ingelesez



**METODOLOGIA
BERRITZAILEAK**

Erronketan oinarritutako
talde lana



ESKAINITZA ZABALA

Erdi eta goi mailako zikloak,
espezializazioak



**GERTUKO
HARREMANA eta
ORIENTAZIO
PROFESIONALA**



**LAN AUKERA
ZABALA**

Enpresa harreman estua



LAN POLTSA

Langile teknikoen beharra



ArmeriaEskola^x

MILAR LARRAMENDI

Etzetresna elektrikoak



Julio Urkixo, 16 bis - AZKOITIA
943-85 18 97
www.milar.eus



TEKNOLOGIAN eta JOERETAN, urrats bat AURRETIK

dyson **Miele**



TK

KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, I • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943 85 20 52 • Faxe: 943 85 20 91

j.artetxe@flkkopistegia.es